

Getxo Antzokia

ABRARA ZABALDUTAKO LEIHOA, EMOZIOEN AGERTOKIA... GURE INGURUKO ARGİ KULTURALA



San Nikolaseko aparkalekuko lanak urtearen erdialdera hasiko dira



Aparkalekua lekutuko den eremuko hondeaketaren egungo egoera.

Gobernu Batzordeak Getxo Antzoki berria egiteko proiektuaren bigarren fasea onartuta, Algortako San Nikolas plaza azpian auzokoentzako eta, ikuskizunak muntatu eta kendu aldera, antzokian bertan sar-

tzeko aparkalekuak egiteko lanak esleitzeko prozesua abiatu da. Izan ere, urrats erabakigarria da proiektuaren abiadura, obra-planeari aurreikusitakoarekin bat etorritik, aurreikuspenok Getxo Antzokia eta Musika Es-

kola berrien inaugurazioa 2013an finkatzen baitute.

Proiektuaren eskaintza 3,6 milioi eurotan egin da eta lanak egiteko hoguei hilabeteko gehieneko epemuga ezartzen du, inguruan lan hauek izan dezaketen eragina gutxitzeko helburuarekin epemuga hori laburtzea espero den arren, epeak ahalik eta gehien aurreratzeko hartutako konpromisoarekin bat etorritik, egun egiten ari diren lanekin gertatzen ari den bezala. Horretarako lanak aldi batera egingo dira hainbat gunetan.

Lanak udaldian hasiko direla uste da, hasierako hondeatzea martxan bada ere proiektuaren lehen faseko lanak aurreratu baitira. Lehen fasean jasotako eginbeharrak, honako hauek dira: hesiak ipintzea, mikropilotajea, lanak eragina izan duten zerbitzuen egokitzea eta hondeaketa.

Lurpeko aparkaleku berria, egungo San Nikolas plaza azpian kokatuko dena, aparkatzeko 105 plaza sortuko dira, horietako lau pertsona elbarrituentzat. Gobernu Taldea partzela horiek Algorta auzoan bizi direnei zelan eman aztertzen ari da. Halaber, Algortan, Getxo Antzoki berri hurre egongo den esparru batean, zerbitzua emango duen txandakako parkinga ipintzeko bideragarritasuna aztertzeko lanak egiten ari dira alde zuzenetik.

Getxo Antzokiaren arkitektoa saritu dute

Luis Maria Uriarte arkitektoa, Getxo Antzoki berriaren diseinuaren egileak, 2010ko Arkitektura Sarietako sari nagusia jaso du. EHAEO, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, hiru urtetik behin deitutako sariak dira, Galdakaoko "Gandasegi Hezkuntza Zentroa" - gaitik, zuzkidura-erakuntza modalitatean, eman diote saria. Bereziki baloratu dute proiektuak "bateragarri egiten duela kolegioaren erabilera espazio irekien mantenimenduari, dagoen hiri-bilbe konplexuan argitasunez eta sentsibilitatez eratu". Uriartek, hortaz, laugarren aldiz jaso du EHAEOren saririk nagusia, modalitate desberdinetan.

ORAINGO LANAK

• Hondeaketa

Hondeaketa bere martxan doa, eritmo onean. Martxoan lanak San Nikolaseko gunean aurreratzeko inoarratu dira, hondeaketa Getxo Antzokiko plazak duen maila berberera berdinduz. Ainguraketa ipintzen hasi dira eta horrek lanak arintasunarekin aurrera eramatea ahalbidetu du. Apirillean hondeaketa lanekin segituko da, material iraunkorretako mailak lortuz.

• Mikropiloteak

Obra inguratzen duten mikropiloteekin amaitu da. 9 bat kilometro pilote jarri dira ilaran. Horiek hondeaketako perimetrotako hormak osatzen dituzte eta behera joan ahala agerian joango dira agertzen.

Boluetria murrizteko berriro definitu da proiektua

Getxo Antzoki berriaren diseinuak arduratzen den arkitektoen taldea gaur egun egituraren boluetria murrizteko aldatu berri batzuk zehazteko lan egiten ari da, auzokideek luzatutako iradokizunei arreta eman ahal izateko, aurretik zehaztutako beharren erantzunean eta zerbitzuen kalitatean eraginik eduki gabe.

Gehien aldatuko diren parametroak altuerari, kanpoko itxurari eta korridore urbanoari lotutakoak dira. Eraikinaren gehieneko altuera, Telefonicaren ondoan, bi metrotan jaitsiko da eta 22,5 metrotan geratuko da. Horrek egitura-aldaketak, eraikitzaileak, instalakuntzakoak, ingeniariak, ikus-eremukoak eta osara arkitektoniko konplexuak indarrean jarri behar izatea suposatuko du. Aipatutako murrizketa egin ahal izateko egitura metalikoaren enpresa espezializaturarekin harremanetan sartu da, proiektuaren neurriko egitura berezi baten diseinua beharrezkoa izango baita.

Korridore urbanoa handitzea

Getxo Antzoki berriaren aurrealdea atzerago gelditze-ko ere lan egiten ari da, horrela Etxeandia Artzapezpikua kaleko etxeetatik urrunago gera dadin. Horrela, inguruko etxebizitzaren eraikina eta Musika Eskolaren arteko tartea 7,52 metrokoa izango da, hain zuzen ere, antzinako Antzokiaren erlaitzarekiko zegoen distantzia berbera.

Horren guztiaren ondorioz, egitura berriaren eraikitzearen dentsitatea HAPOK legalki aurreikusten duena baino txikiagoa izango da, hau da, eraikitzaile batek toki horretan etxebizitzaren eraikina egingo lukeena baino bolumen txikiagoa eraikina. Gainera, erabilpen publikoko lurzorua azalera aurrekoa baino 600 metro koadro handiagoa izango da.

Aldaketa horiekin, Musika Eskola eta Getxo Antzokiaren arteko tartea egiturari zabaltasun handiagoa emango dio. Eskola "flotatzen" egongo balitz bezala geratuko da, bere oinarrian estaltzeko bolumena baino aldi berean plazara zabalik edukiko duelako eta horrek oinezkoentzako gunea bikoiztuko du. Bere altuera ere



berriro definituko da, Getxo Antzokitik ondoan behe solairua eta hiru gehiago edukiko baititu eta plazarantz doan neurrian behe solairua eta bi izango ditu. Horri esker ingurua eguzkitsua izango da. Gainera beren

kanpoko konposizioetan beira tolestua eta laua nahasten dituzten enpresa nabarmenen aholkularitzarekin lan egiten ari da, eraikinaren ikustea hobetze aldera.

Zehatz-mehatz

Nazioartean akustika alorrean aditu ospetsua den Higin Arau doktorea Getxo Antzoki berriko lantaldia bildu da txikiagotze boluetrikoan aholkulari gisa jarduteko, instalazioen baldintza akustikoak egokienak direla kontrolatzeko helburuarekin. Akustika arkitektonikoaren eta instalazioen ingeniariaren arlo guztietan aditua den fisikari honen lanak barne hartzen ditu auditorioak, antzokiak, biltzar-jaregiak, hitzaldi-aretoak, kontserbatoiak, elizak, kiroldegia, ...Proiektu asko egin ditu eta horien artean daude Euskalduna Jauregia, Kursaal eta Liceo Antzokia eta Milango Scalaren bererakitzeko lanak.



NOIZ IZANGO DUGU HAU GETXON?

Algortako Biotz Alai abesbatzak 40 urte baino gehiago daramatza bere ohiko Bazkideen Abesbatza antolatzen, ziurrerena urteko kontzerturik enblematikoa eta hori egun berezia izaten da Algortan. Kontzertu hori Gurea Zinemaren ospatzen hasi zen. Nicolás eta Juan Uribarri, zinemaren jabeek eskaintzen zizkiguten erraztasunekin, eser-

lekuaren lehenengo ilarak estaltzen zituen metano-tuboz eta taula aglomeratuz egindako agertokia kultur gune bihurtzen zen eta han musika, antzerkia, zinema eta abar eskaintzen ziren. Ondoren antzinako Gran Cinema udal eraikina bihurtutakoan Getxo Antzokia izatera pasa zen. Bazkideen Kontzerturako eta ospatzeko horren beharra zuten ikuskizunetarako agertokia izanik.

Algortako eta Getxoko gauza harigarririk zabaltzen zituen elkarrizketa buruan dut, horretan gure herrian zerbaiten falta nabaritzen nuen galdetzen zidatelako eta noski, Biotz Alai abesbatzako kidea naizenez, baldintza egokien auditorioa eskatzen nuen, Getxok merezi zuelako eta erabilpen anitz emango liokeelako. Abesbatzarekin bidaia egin ditugunean askotan auditorio

modernotan abestu dugu, oso akustika onarekin, balio antzeko agertokiekin, eserleku erosoekin eta errez heldetako eta beti desio berbera eduki dugu "Noiz izango dugu hau Getxon?"

Azkenean eduki egingo dugu, bere eraikitze prozesuan arazoekin eta eragozpekin, bere kokapenagatik eragina bizi izaten ari diren protestekin, baina ziur nago eraikita dagoenean, 700 lagun baino gehiagorentzako areto-auditorioarekin eta balio antzeko beste aretoekin, bere musika eskolarekin eta abarrekin kultur eta arte gunea eta gure herriarekiko maitasunaren eta laguntasunaren sinboloa edukitzeaz harro sentituko gara. Ongi etorria Getxo Antzoki Auditorio berriari!

Bazenekien...?

...zinea udalerritako erdigunetara ari dela itzultzen eta zentro komertzialean desagertzen ari dela? Antzokia duten udalerririk guztiak, kasuak kasu, Elorrio, Basauri, Mungia, Leioa, Igorre, Gernika, Arrigorriaga, Muskiz, Bermeo, Santurtzi, Barakaldo, Galdakao, Zalla, ... zinea ari dira berreskuratzen beren programazioko elementu nagusi bezala, bizi-rik dagoen eta guztiztat den kultura baten alde, programazioa zabala duen eta ekonomikoki eta fisikoki esku eskura dagoen kultura baten mesedetan.

...egun gure udalerrian orkestra sinfonikoaren kontzertuak eskaini ahal izateko leku egoki bakarra eliz batzuk direla eta getxotarrak herri-rik atera behar dutela operak, zartzuak, dantza ikuskizunak, eta abar ikusi ahal izateko?

...Getxo Antzokiaren eta Musika Eskolaren maketa eta infografiak lau erakusketetan erakutsi dituztela (Algortako merkaturan birritan, Getxolandiako karpapean eta Gobelako kiroldegian) eta laster Neguri Langile eta Aldapa auzoko bizilagunei erakutsiko dizkietela?



• Informazio-telefonoa: 94 466 01 05
 • Posta elektronikoa: iradokizun@getxo.net